

EH Bilduren hautagaiek klase politikoaren portaera zintzo, eraginkor eta gardenaren aldeko konpromisoa sinatu dute

EH Bilduren parlamentariak Eusko Legebiltzarrean izango duten jarduera zuzenduko duen konpromiso etiko batekin bat egin dute.

” Legebiltzarkideak langile publikoak dira, zintzotasun eta ekitate irizpide pean jardun behar dutenak, eta beren soldata gizartearen zerbitzura dauden langile funtziora egokitu behar dutenak”. Laura Mintegi lehendakariak horrela laburtu du gaur hiru zerrendaburuek sinatu duten dokumentua, konpromisoa hautagaitzaren zerrenda osatzen duten kide guztiengana zabalduz.

POLITIKA EGITEKO EREDU BERRI BATEKIN EH BILDUREN KONPROMISOA

Sistema demokratikoarenganako konfiantzak eta jarduera politikoaren prestigio sozialak harreman zuzena dute klase politikoaren eta alderdi politikoen jokaera zintzo, eraginkor eta gardenarekin. Neurri handi batean, nazio baten osasun demokratikoa bere ordezkari politikoen jokaera etikoaren araberakoa da.

Zintzotasuna, zuzentasuna, leialtasuna, eraginkortasuna, gardentasuna, herstura ekonomikoa eta zerbitzurako gogoia dira jarduera politikoa zuzendu behar duten oinarrizko printzipioak. Printzipio horiek dira Euskal Herria Bilduko ordezkari guztiok euskal gizarte osoarekin hartu dugun konpromiso etikoaren oinarria. Printzipio horiek dira Euskal Herria Bilduk Eusko Jaurlaritzara eta Legebiltzarrera eramango duen politika egiteko eta kudeatzeko modu berriaren oinarria.

Honako hau da Euskal Herria Bilduko kide guztiok euskal gizartearekin izenpetzen dugun kontratu etikoa, kudeaketa politiko eredu berri bat abian jartzeari begira:

1. Gure jarduera politikoa eta instituzionala, EH Bilduren izenean, publikoa izango da eta gure kudeaketak honako printzipio hauek izango ditu oinarri: jendartearekiko leialtasuna, zintzotasuna eta herstura diru publikoaren administrazioan eta gardentasuna gure funtzioak betetzeko orduan.
2. EH Bilduko karguok euskal gizartearen zerbitzura gaude. Demokrazia parte-hartzailean sinisten dugu, hau da, jendartearekiko harreman etengabe eta leial batean. Gure konpromisoa gizarte zibila indartzea da eta horretarako bide berriak irekiko ditugu gizarte mugimendu eta eragileek modu erreal eta

eraginkor batean parte har dezaten erabakiak diseinatu eta hartzeko orduan, betiere haien autonomia errespetatuz.

3. Diru publikoaren kudeaketan ezinbestekoak dira beti herstura zein eraginkortasuna; balore horiek bateraezinak dira kargu politikoen soldatetan eta egunsarietan neurririk gabe gastatzearekin. Printzipio horrekin bat etorritik, EH Bilduk Eusko Jaurlaritzako eta Legebiltzarreko soldatak azpitik berrikusiko ditu eta bertan behera utziko ditu Gasteizko legebiltzarkideei sistematikoki ordaindu ohi zaizkien egunsariak.
4. Gure jarduera, EH Bilduko kargu publiko bezala, gardena izango da erabat. Koalizioko ordezkari orok ondasun aitortpen publikoa egin beharko du bai kargua hartzerakoan, bai kargua utzitakoan.
5. Zintzotasunak bideratuko du beti gure jarduera baliabide publikoak kudeatzean, eta interes orokorrak lehenetsiko ditugu beti, interes pertsonalen edo partikularren gainetik. Jarduera politikoa gizarteari zerbitzu ematea da, ez etekin pertsonala edo alderdikoia bilatzea; beraz, ezin da inolaz ere onartu kargu publikoek edo instituzionalek edozein motatako pribilegiarik izatea. Horri jarraituz, EH Bilduk Eusko Legebiltzarreko Erregelamendua aldatuko du legebiltzarkide guztiek edozein langilek dituen betebeharrak eta eskubide berberak izan ditzan, eta ez gehiago, bai Gizarte Segurantzari dagokionez edo eta langabeziari dagokionez.
6. EH Bilduko kargu publikoek ez dugu parte hartuko interes ekonomikoren bat, edo beste edozein abantaila, pertsonala edo familiarra, eduki dezakegun edozein gaitan. Halaber, ez gara karguaren ondorioz eskura izan dezakegun informazioaz baliatuko gure mesederako edo besteren baten mesederako, ez zuzenean, ez eta zeharka ere, ez karguan gauden bitartean, ez eta ondoren ere. Eta ez dugu ez oparirik, ez dohaintzarik, ez gonbidapenik, ez edozein motatako abantailarik onartuko, baldin eta gure jarduera politikoa eta instituzionala burutzerakoan gure neutraltasuna baldintza badezakete.
7. EH Bilduko kargu publikoek norbanakoaren erantzukizunean oinarritutako lan etika bat garatuko dugu; horrek dakar karguan aritzean egindakoetatik edo ez-egiteetatik erator litezkeen efektuak eta ondorioak neurtu eta gure gain hartu beharra.
8. EH Bilduko kargu publikoek edozein ikerketaren aldeko bozka emango dugu, bai eta gure gaineko ikerketak edo koalizioa osatzen duten alderdien ingurukoak bozkatzen direnean ere, ikerketa horien helburua ustelkeriagatiko edo influentzia-trafikoagatiko balizko erantzukizunak garbitzea edo, oro har, etikoki gaitzesgarria den edozein jokabide argitzea denean.

9. Pertsonen arteko harremanetan giza duintasunarekiko errespetua oinarritzat hartuta, EH Bilduko kargu publikoak lehia politikoa gure aurkari politikoen duintasun pertsonalarekiko leialtasun ariketa bezala hartzen dugu; hortaz, haien ospea urratzeko edozein jokabide eta haien bizitza pribatuan sartzea baztertzten dugu, bai eta giza duintasunaren aurkako beste edozein ekintza ere.
10. Gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun egoerak gainditzeko irtenbide puntual eta partzialak alboratzea ezinbestekoa ikusten dugu. Horregatik, emakumeen eskubideak bere osotasunean errespetatuak izan daitezen lan egingo dugu, egungo sistemaren gainditzea bilatuz eta maskulinitatearen mistika ere alboratuz.
11. Ezberdinen arteko elkarrizketa, negoziazioa eta akordioa EH Bilduren DNAn bertan daude. Horixe izango da gure lan eredua (elkarrizketa, negoziazioa eta akordioa), eta beti euskal gizartearen interes orokorraren alde.